

Idurre Eskisabel Larrañaga

Nor izate askatzaileen trebatzaile

Kuadrillako pasadizo sonatua da, lagunetako baten aurreneko etxebizitzaren estreinaldi festan, 1998 urrun hartan, sekulako grazia egin zigula egongelako arasan liburu bakar bat aurkitzeak. Bakarra, baina mardula: Joxe Azurmendiren *Espainolak eta euskaldunak*. Ez zen adar jotzerik falta izan afari eta afal ostekoetan... Geure burua kulturazaleztat genuenok liburutegia ale bakar batera murriztu zuelako egin genion barre lagunari... Kulturarako joera pose arranditsutat zuen kuadrillako zatiak, berriz, intelektualetara jolastea egotzi zion trufaka...

Egia esan, lagun hura ez zen sekula irakurzalea izan. Eskolan derrigorez leitu beharrekoak ozta-ozta bukatzen zituen horietakoa zen. Baina gerora hainbat elkarrizketaren bidez erakutsi zidan *Espainolak eta euskaldunak* xehe irakurri zuela, sakon. Horrenbestez, hasierako algara burlatia harridura bihurtu zitzaidan, ulertu nuen arte barru-barruko hutsune batek eraman zuela laguna Azurmendiren liburua letra txikienaraino mamurtzera eta egongelako arasa aldaretu hartan paratzera: nor zen ulertzeko beharrak. Are, senezko euskalduntasun modu intimo bati zentzuzko eta mundurako nor izate bat emateko premiak. Oraindik eta gehiago: mundua bizigarriagoa egingo duen nor izate batean trebatzeko gogoak. Finean, bere buruaren aurkikuntzarako eta libertaterako trebakuntza eman zion Azurmendik. Halaxe eman zigun beste hainbati.

Duela hilabete batzuk irakurri nuen Chimamanda Ngozi Adichie idazle nigeriarraren *The Danger of a Single Story* (egiari zor, *El peligro de la historia única* gaztelerarako itzulpena, Marina Garcés filosofo katalanaren epilogoarekin). «Kontakizunek garrantzia dute. Kontakizunak desjabetzeko eta iraintzeko erabili dira, baina baita ere erabil daitezke ahalduztzeko eta humanizatzeko. Herri baten duintasuna hauts dezakete, baina baita berrezarri ere», horratx Ngozi Adichiek liburuxka horretara eramandako ideia nagusia.

Eta, aldeak nabarmenak diren arren –tamaina eta sakontasunetik hasita, hogei minutuko TED hitzaldi baten transkripzioa baita Ngozi Adichierena–, irakurketa horrek Azurmendi ekarri zidan gogora; zehatzago, kuadrillako lagunaren pasadizoa. Izan ere, liburuxkari bide eman zion hitzaldia 2009an eman zuen Ngozi Adichiek, eta ordutik milioika eta milioika lagunek ikusi dute tankera askotako pantailetan. Eta haietako gehienengan nire lagunak (edo nik neuk) Azurmendirengan bilatu –eta aurkitu– dugunaren premia bertsua intuitu dut: kontakizun nagusi eta orohartzaileek ukatzen diguten nor izate batena; geure buruarena eta libertatearena. Hau da, desjabetutako milioika lagun sentitu ditut alboan, milioika gizaberetxo, ukatutako nor izatean trebatzen, nor izateak egiten, nor izanez ekiten...

Azurmendik azpimarratu zigun bezala, praxian egiten baikara: ekin-tzen bidez nor, ekintzan euskaldun, munduarekin elkarriketan, etengabeko irekiduran. Hain justu, hortxe dago erabateko jite apokaliptikoa hartua duen munduarentzako itxaropena: kontakizun nagusi homogeneizatzaile eta totalaz aparteko nor izateak trebatzeko eta eratzeko posibilitatean, praxi berrien sorkuntzan. Hortxe Euskal Herriaren aukera. Eta hortxe Azurmendiren emariaren oparotasuna: egungo eta etorkizuneko gazte eroei nor izate askatzaileak trebatzeko tresneria utzi diela oinordetzan, arbola emankor baten moduan, Euskal Herrian sustraituta, baina adarrak eta fruituak mundura zabal. Hainbat ari dira horretan, Azurmendiri ikasitakoak egungo munduarekin eta egungo auziekin elkarriketan jartzen, euskaraz ez ezik, euskara eraldaketarako ardatzeko tresna politikoa dela sinetsita.

Izan ere, etorkizunerako bide-orria idatzia utzi zigun *Espainolak eta euskaldunak* gogoangarriko azken lerroetan:

Itzuli beharra daukagu atzera, izandu gabe geratu ginen Ernazimentu hartara: Euskararen Ernazimentura baino gehiago, Ernazimentu euskarazko batera. Geure buruaren aurkikuntzara eta libertatera.